

Ipuin kontaketak eta antzerkiak eskualdean Liburuaren Egunaren baitan

Ekitaldiak, urtero legez, Zarautz eta Zumaian egingo dira bihar hasi eta ostirala bitarte

Zarautz. Liburuaren Egunaren baitan, Miguel de Cervantes Saavedra idazlearen heriotzaren eguna ospatzeko, urtero legez, Zarautz eta Zumaiaiko Kultura saileko arduradunek hainbat ekitaldi antolatu dituzte bihartik aurrera.

Zarautzen asteazkenean 17.30etik 18.30era Pello Añorgak ipuin kontaketa eskainiko du Liburuaren Egunaren inguruan, Sanz Enea kultur etxean. Zumaian aldiz, Liburuaren Astea antolatu dute eta bihar hasiko dira ekitaldiak. Asto bat hipodromoan ipuin kontaketa eskainiko du Gorringo taldeak, 17.30ean, Foronda kultur etxeko haur liburutegian.

Asteazkenean, Liburuzainaren bahiketa antzezlanak egingo da, 17.30ean, Zumaiaiko Foronda kultur etxeko haur liburutegian. Xoxipe taldeak aurkeztuko du obra. Buka-tzeko, ostiralean, 22.00etan, Erredakzioa itxita antzezlanak ikusteko aukera izango da Zumaiaiko Aita Mari Aretoan, Patxi Santamaria aktorearen eskutik. Bestalde, Zarauzko Sanz Enea kultur etxeak liburu, CD, DVD eta bestelakoak jasoko ditu hilabete honetan. >a.l.